

Hala xedatzen baitu 133.1 artikuluan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatuko da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkaritza handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Dena dela, artikuluko horren 6. apartatuak ezartzen du ezen aipatutako alde aurreko kontsulta publikoa ez egitea ere badagoela, baldin eta arau-proposamenak eragin esanguratsurik ez badu jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei betebeharrak garrantzitsurik ez badakarkie edo arautzen dituen aspektuak partzialak badira.

Foru dekretuaren proiektu honen xedea da erregelamendu bat aldatzea, hain zuzen ere, garatzen duena Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra egintzak administrazio bidean berrikusteari dagokionez, helburua baita haren edukia egokitzea erregelamendu hau aplikatzean izandako esperientzian antzemandako beharretara.

Alde horretatik, kontuan hartu behar da ezen foru dekretuaren proiektu hau bat datorrela hitzez hitz martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoak, 133. artikuluko 6. apartatuan ezarritakoarekin, zentzu honetan: baldintzak betetzen dira proiektua egin aurreko kontsulta publikorik ez egiteko; izan ere, arau-proposamenak ez du eragin esanguratsurik jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei ez dakarkie betebeharrak garrantzitsurik eta arautzen dituen aspektuak partzialak dira. Aipatu foru dekretuaren proiektuaren bidez aldatzen da urriaren 17ko 85/2018 Foru Dekretuak onetsitako Erregelamendua, zeinaren bidez garatzen baita Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra egintzak administrazio bidean berrikusteari dagokionez.

Hori hala izanik ere, foru dekretuaren proiektua jendaurrean jarriko da eta Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko, baita Nafarroako Zerga Ogasunaren atarian ere.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendaria

Cristina Sarasa Villaverde